

BERRIGARA

Xabier Gabilondo
Iganderako prest

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, martxoak 10




Gorlako igoera: txirrindularitzaren ordua



ALDASORO

Aprobetxatu gure prezio hobezinak:
oinetako, poltsa, kartera, e.a.
BARRUAN DENBORALDI BERRIKO NOBEDADEAK

MERKEALDIAK!
Azken
txanpa



ARROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefona eta Faxe: 76 54 91

ZABALDU BERRIA!!
ZATOK GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA

Altzarien dekorazio eta erakusketa

- *Betiko leihoak gaur egungo teknolojiari egokituta*
- *Ez hotzik, ez zaratarik, ez urik!!*
- *Leiho termoakustikoak*

- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

Amaitia lurrindegia

Usaindegia eta oparigaiak

• **DEPILAZIOA**

Orratzik gabeko behin-betirako depilazioa
(TERMOSLIM METODOA)

Behin betirako depilazio elektrikoa
(BLEND METODOA)

Argizari bidezko depilazioa
(Epela eta beroa)

• **TRATAMENDUAK**

Aurpegiko azalaren garbiketa

Aurpegirako tratamendua

Gorputzerako tratamendua

• **MASAIK, MANIKURA, SOLARIUMA...**

Barrenkale, 25 ☎ 76 16 97



ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tiroa eta Faxe: 76 03 97

Argitaratzailea:
JARDUN Elkartea.
Masterrreka, 13 Bergara.
Tiroa eta Faxe: 76 08 19

Zuzendaria:
Eneko Azkarate
Eredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Publizitatea:
Alex Azkarate
Harpidetzak:
Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Eredakzio kontseilua:
Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Itzi Eranza

Komikiak:
Bitor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:
Txantxangorri taldea

Tirada:
3.800 ale.

Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:
BERRIGARA

Lege gordailua:
SS 50/91

ISSN:
1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ESTEPAN PLAZAOLA Udaleko Euskara teknikaria

- Deba Bailarako udaletako Euskara eta Kirol Zerbitzuek ikastaro berriak iragarri dituzue...

- Horrela da, bai. Kirola Euskaraz plangintzak bi asmo ditu: batetik jendea prestatzea eta bestetik euskaraz kirol materiala prestatzea. Hemendik pare bat hilabetera bi liburu kaleratu dira eta laster entrenamendurako fitxak sortzeko beka bat ere kalean izango da.

Ikastaroei dagokienez, bi eratako ikastaroak daude: tituloak lortzekoak eta bestelakoak.

- Zeintzuk dira hurrengo ikastaroak?

- Ur azpiko kirola (buzoa) apirilaren 1ean eta San Bergaran, Boleiboleko entrenatzaile tituloa lortze-



ko ikastaroa Eibarren (maiatzak 6), squash hobekuntzako ikastaroa Arrasaten (maiatzak 15) edota patinajeko hasiera ikastaroa (martxoak 18 eta apirilaren 1ean) Aretxabaletan eta hobekuntzako Elgoibarren (maiatzak 6).

Ondoren, udazkenean, beste ikastaro batzuk antolatuko ditugu eta ea jendea animatzen den.

"Euskaraz kirol materiala prestatzeko ikastaroak antolatu ditugu"

I T U R R I O N E T I K

Zapelaitz Motorzale taldeak motor txikien erakustaldia antolatu nahi

Zapelaitz Motorzale taldeak *pocket-bikes* edo motor txikien erakustaldi bat antolatu nahi du datorren maiatzaren 27an Seminarioan. Aste honetan bertan Zapelaitzeko kideak Udaleko Jai Batzordeko hainbat ordezkariarekin bildu dira antolaketaren gorabeherak zehazteko. Udaletxea prest azaldu da printzipioz kolaboratzeko eta Zapelaitzekoei aurrekontu bat gertatzeko eskatu die. Bergarako motorzaleek, esan bezala, erakustaldi bat prestatu nahi dute eta horretarako honelako motor txikietan ibiltzen den zenbait jende ekarriko lukete jendeak indarra hartu duen espezialitate hau ezagutu dezan.

E S A N D U T E

"Aspaldi egindako abenturak berregiten jarduten duen jendea dago. Hala ere, badaude oraindik harritu eragingo diguten eskaladak, baina ziur aski jendeak ez die behar besteko garrantziarik emango"


JON LAZKANO
Eskalatzailea
GAILUR
ALDIZKARIA

"Oso patata gutxi dago aurrean eta merkatuak berak agintzen du: gutxi dagoenean garestitu egiten da. Zergatik dagoen gutxi? Bi arrazoiengatik: batetik joan zen urtean izan zuen prezio txikiagatik eta aurreko urtean ere oso gutxi erein delako"

MAITE ARISTEGI
EHNEko partaidea
EUSKADI IRRATIA

"Eskalada komunikabideetan agertzen den guztietan gertaera tamalgarrien berri emateko izatera ohituta gaude"

AITOR PAYROS
Eskalatzailea
GAILUR
ALDIZKARIA



ACOSO

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



EN LA MILI (AMERICANA)

Igandea: 11.30 (Matinala).



UNA MUJER PELIGROSA

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Michael Crichton** idazlearen (*Parque Jurásico*) *best-sellerean* oinarrituta, **Barry Levinson** zuzendariaren (*Rain man*) filme honek arrakasta haundia izan du takiletan munduan zehar. Akoso sexualaren gaiari buelta emanaz, langile gizonezko batek (**Michael Douglas**) bere nagusiarengandik (**Demi Moore**) jaso dezakeen eraso planteatzen zaigu. Zeresan ugari eman duen filma.

▼▼ **Bones Conway (Pauly Shore)** komikoa ez da ejerzitoak espero duen soldadu modelo horietako bat. Hori gutxi balitz, pazifista izanik, ejerzitoarengandik probetxua atera nahi izango du lan gutxi egin eta soldada bat irabaziz. Baina garrantzi haundiko misio bati ere egin beharko dio aurre...

▼▼ **Debra Winger** aktoreak (*Oficial y caballero*, *Tierras de penumbra*) emakume maltzuraren papera lantzen du **Stephen Gyllenhaalen** filme honetan. Bere izebak (**Barbara Hershey**) ume bat zenetik zaindu izan du **Martha (Debra Winger)** baina elkarren arteko erlazioa ez omen da erreza. Biak maitasunaren bila dabilta...

Deiak

▼ **Bideoa.** JARDUNek antolatutako "Polizi Akademi eroa 3" haurrentzako bideoa bihar, goizeko 11etan, Kultur Etxean.

▼ **Erakusketa.** Ricardo Azkargortaren margoak Kultur Etxean.

▼ **Dani Laskurain**en grabaketa erakusketa Elorrioko Arriola Kultur Aretoan martxoaren 31ra arte.


▼ **Orfeoi Gaztearen** emanaldia bihar 22.30etan Mutrikun.

▼ **Skia.** Pol-Polen irteera Alpetara Aste Santuan. Argibide gehiago 76 48 51 telefonoan.

▼ **DEGABEL** Deba Garaiko A-beltzainen Elkartearen bilera igandean, 11etan, Eskoriatzako Kultur Etxean. Bigarren deialdia 12etan.

Ogia

▼ **Igandea 12:** Bolintxo.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 10:** Puy.
- ▼ **Larunbata 11:** Guallar.
- ▼ **Igandea 12:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 13:** Estella.
- ▼ **Asteartea 14:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 15:** Camacho.
- ▼ **Osteguna 16:** Puy/Irizar.

YAZKI UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

KOXKA



- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

Argazki erakusketa

Koldo Gálvez bilbotarrak irabazi du Emakumeen VI. Ihardunaldietan antolatutako argazki lehiaketa. Lehiaketa honek 14 argazkilari aurkeztu dira (horietatik 6 kanpotarrak) eta epaimahiak 47 argazkiren artean aukeratu behar izan ditu lanik onenak.

Esan bezala, Gálvezen "Olatz III" izenburuko lanak eskuratu du lehen saria, bigarren saria Jose Luis Feorentzat izan da ("Expresión") eta Daniel Santosek eraman du hirugarrena "Acordeón" lanagatik. Era berean, herriko onenari zegokion saria Benito Canterorentzat izan da ("Sonia"). Jose Luis Feorena kenduta, gainontzeko argazki sarituak zuri-beltzean ateratakoak dira. Jose Luis Feo, Daniel Santos eta Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldeko kideak dira.

Parte hartu duten argazkilari guztiek "Emakumea gaur eguneko gizartean" gaia landu behar izan dute beren lanetan eta badira emakumea lanean, kirolean edota emakumea 3. munduan isladatzen dituzten argazkiak.

Lan onenen erakusketa martxoaren 21era ar-

Emakumeen lehiaketara aurkeztutako lanak ikusi ahal izango dira Pol-Polen



Koldo Galvez bilbotarraren Olatz III eraman du lehen saria

te ikusgai izango da Pol-Poleko erakusaretoan, arratsaldeko 7etatik 9etara. Sari banaketa, berriz, bihar larunbata eguerdi-

ko ordubatean egingo da Pol-Polen. Sariak hauek izan dira: 20.000 pezeta (irabazlea), 15.000 (2. saria) eta 10.000 pezeta

(hirugarren saria eta herriko onena) gehi Tere Goenetxearen eskultura bana eskuratuko dituzte.

Aurten Alazne Mendizabal Jarduneko Emakume Taldeko kideak, Marga López Egizaneok eta Jose Agustin Gurrutxaga Pol-Pol Argazki Taldekoak osatu dute epai-mahaia. Epai-mahiak aurkeztutako lanen maila altua goraiatu du.

Lehiaketara 17 argazkilari aurkeztu dira, horietatik 6 kanpotarrak, eta guztira 47 argazki presentatu dira

FERNANDEZ



**Oihal pusak
Oihalak**

San Antonio, 3
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2
☎ 76 53 22

MUGICA

GOXOTEGIA



Artekale, 3
☎ 76 10 34

- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

*Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak*

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

Emakume eta langile

Emakumea lantegietan ez da berria, eta azkenengo urteetan geroago eta gehiago ari da soldata lanetan (etxean behin ere ez baita zazio falta izan). Hala ere, etxetik kanpo lan egin nahi duten emakume guztiak ezin dute lanposturik lortu; Euskadin langabezia nahiko altua bada ere, gizonezkoetan %19koa da, emakumezkoetan tasa hau ia bikoiztu egiten da, %35,5era iristen bait da. Eta ez pentsa datu hauek errealitatea bere osotasunean hartzen dutenik; denok dakigu emakumeak adin batez aurrera lanerako ia aukera guztiak galtzen dituela, eta ez dela INEMera izen ematera joango.

Alderantziz, lanean ari diren gizonezko kopurua %64 ingurura iristen den bitartean emakumeak %36 baino ez dira. Eta hau ez da gertatzen emakumeok gogo gutxiago dugulako aukera faltaz baino. Puntu hontan topiko zentzugabe bati aurpegi eman behar diogu: esan ohi da emakumea lanera joaten dela senarraren soldataz gain etxerako sos batzuen bila, pixka bat denbora pasa edo. Argi eta garbi adierazi behar dugu gizakumearen eta emakumearen lanerako motibazioak berberak direla; norbere kabuz lortutako diru sarrerak nahi dituzte bai batak eta bai besteak, horrek ematen bait du bizibidea, independentzia eta ingurukoen errespetoa gure gizartean. Beste guztiak aipatzea ez nihoan "ismo" zatar batek sortutako diferentziak dira.

Aipagarria, baita ere, emakumearen lana, etxez kanpo ere, etxeoandre lanekin nola-baiteko zerikusia duten ekintzetan kokatua dagoela. Bazen garai bat industri lantegiak neska gaztez beterik zeudena, merkeakoak bait ziren eskulanetarako, gaur egun ordea, emakumeak enplegatzen zituzten sektore klasikoan ere, adibidez Bergaran textila, gizakumea nagusitu da. Zerbitzu sektorea da, bere esanahi zabalenean, emakumeak enplegatzen dituen.

Lau dira konkretuki lanean ari diren emakumeen % 77 okupatzen dituzten lanbideak: 1. Zerbitzu domestiko eta hostelari, %29,4. 2. Administrazio laguntzaileak, %19,51. 3. Komertzio eta salmenta, %15,51. 4. Erizaintza, irakaskuntza eta antzerakoak, %13,31.

Zer esanik ez lanbide edo profesio kategoriarik baxuenetan kokatua dagoela emakumearen lana, enpresa pribatuan behinepein. Honi buruz datu adierazgarri bat ezartzera nihoa: administrazio publikoan erdi bana partitzen dira lanpostuak, beraz ez dago, kopuruan behintzat, sexu arteko diferentzia nabarmenik, zergatik?, hemen oposizio bidez lortzen delako lekua, enpresa pribatuan ordea, oraindik gizarte zabalean dirauten aurreiritziak nagusiki agintzen dute. Aurreiritziak gure aukerak birrintzen ari dira. Ezkongeak emakume ezkonduak baino bi aldiz gehiago dira lanpostua lortzen dutenak; amatasuna dago diferentzia honen funtsean, enpresariak ez omen dute nahi haurgiztaren kosturik jasan, zer haurgintza ordea, bikote bakoitzaren aurren tasa %0,9ra iristen ez denean? Lan Erreformak ere, aurretikoak nahiko ez balira, beste makilakada bat eman digu. Esate baterako, "contrato a tiempo parcial" deritzaienetan, 12 ordu astean edo 48 hilean baino gutxiago lan eginez, ez dugu gaisotasun, amatasun, jubilazio edo lanarekin zuzenki zerikusirik ez duten ezbehar eta ezintasun kasuetan diru laguntzarik izango. Eta kontutan hartu dezagun kontratu mota hau emakumezko langileen %11k dutela (hemen ere gizonezkoak hobeto aztertzen dira, %1,6 baino ez bait dira).

Etxekoandreak ez direla konpetitiboak etxeo lanak egin ondoren lantegira nekatuta joaten direlako, horixe bakarrik falta zaigu en-

Bergarako Alkateari

Alkate jauna:

Bergarako Udaleko enpresa komiteak idatzi honen bidez, zera salatu nahi du:

Joan zen urteko azaroan, hauteskunde sindikalak egin ondoren, Udaleko ordezkari-kin bilera egiteko eskaera luzatu zuen enpresa komiteak, hainbat gai aztertzeko asmoz.

Harrezkero, 123 egun bete dira lehenengo bilera-eskari hura egin genuenetik. Bilera-eskaria ahoz egin genuen arren, garbi adierazi genuen oso gai garrantzitsuak aztertzeko zela.

Udalaren erantzunik jasotzen ez genez, urtarrilaren 18an idatziz egin behar izan genuen eskaera, eta bi egun beranduago, hau da, lehenengo eskaera egin zenetik 77 egunetara, elkartu ginen aipatutako gaiak aztertzeko.

Bilera hartan aztertutakoa akta batean jasota gelditu zen, eta gaur da eguna urtarrilaren 20an esandakoak Gobernazio Batzordeak aztertu ez dituen, eta inongo azalpenik eman ez duena.

Gure ustez, horrek garbi erakusten du Udalak langileekiko duen jarrera eta begirunea.

Arazo honi irtenbiderik ematen ez bazaio, gure jarrera aldatu beharrean izango gara.

Besterik gabe, begirunez.

Bergara, 1995, martxoak 7.

BERGARAKO UDALEKO ENPRESA KOMITEA

IZASKUN ITURBE ELAKO ZERBITZU JURIDIKOETAKOA

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Eskutaldeak Udal Pelotalekua jestionatuko du 2016 urtera arte

◆ Aranzadiko zozketa

Aranzadi Ikastolak antolatutako zozketan, 45.267 zembakia motor batekin eta 267a musika katai batekin sarituak izan dira.

◆ Igerilekuak

Bihar larunbata igerilekuetako sauna eta gimnasioa zabalduko dira. Igerilekuak uraren beharrezko tenperatura lortzen denean zabalduko dira publikora.

Larunbatean Herederos de Gabilondok eta Eskutaldeak azken honek Udal Pelotalekuaren ardura hartzeko akordioa sinatu zuten Kultur Etxean, Bergarako Udalaren oneritziarekin. Bertan, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Iñigo Idarreta Herederos de Gabilondoren ordezkaria eta Fernando Ugarte eta Fernando Dublang Eskutaldekoak izan ziren. Urrian Plenoan onartu zen akordioaren arabera, Herederos de Gabilondok Eskutaldeari uzten dizkio frontoiko errenta eskubideak. Udalak, berriz, 1966an sinatu zen kontratoaren zesio hori onartzen du, hainbat nobedade erantsiz. Horrela, 1999 urtera arte 200.000 pezeta gehi urteko BEZa ordaindu beharko du hilero Eskutaldeak eta fetxa horretan errenta gaurkotu egingo da. 2000 urtetik aurrera horrela egingo dute urtez



Larunbateko sinatze ekitaldian Iñigo Idarreta, Victoriano Gallastegi, Fernando Dublang eta Fernando Ugarte izan ziren.

urte Udalak eta Eskutaldeak. Era berean, 2016 urtean Eskutaldeak Herederos de Gabilondok zeukan prorroga eskubideari uko egingo dio.

Frontoian egin beharreko hobekuntza lanak Udalak egingo ditu. Lanak Pentekoste jaien ostean hasiko dira eta, besteak beste, frontoiko sarrerak, aldagelak eta taberna hobetuko dira

eta, nobedade gisa, kontrakantxa egingo da. Anselmo Inurrategik landutako proiektuak 50 milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka eta lanak 5 hilabetetan amaitzea espero da. Bestalde, asko hitzegin arren, telebista erretransmisioak hobeak izan daitezten, Eskutaldekoek oraindik ez dute erabaki frontoia zein kolorez margotuko den.

JAIOTAKOAK

Guillermo Regorigo Alonso

Otsailak 23

Manex Goiti Aiatsui

Otsailak 27

Aitor Narbaez Oregi

Martxoak 2

HILDAKOAK

Concepción Narbaiza Goenaga

Martxoak 1, 67 urte

Vicente Alerdi Sorasu

Martxoak 3

Andres Zabaleta Pildain

Martxoak 5, 64 urte


Bernardo Urrutibeaskoa

Martxoak 6, 84 urte

Juliana Berardi Eloz

Martxoak 7, 81 urte

Udaletxerako material trasladua laister



Udalak Barrenkaleko bulegoak utziko ditu martxoan.

Datorren astean hasiko da ziurrenik Udaletxe berrirako trasladua. Lehenbizi Idazkaritza pasako da Udaletxe berrira. Udal Biltegiko langileek adierazi digutenez, *"gauza batzuk gertatzen ari gara. Jendea iratentzako dauden zerbitzuak, premiarik baundia dutenak, trasladatuko dira lehenengo eta hori arratsalde batean egin daiteke, arratsaldeko ordu bietan hasi eta iluntzera arte, burrungo goizean jadanik martxan hasteko. Beste departamentu batzuekin, berriz, ez dago hainbeste presarik eta geroago egingo da aldaketa"*.

Oraindik trasladua egiteko agindurik jaso ez duten arren, momentu batetik bestera egingo da, Udalak Barrenkaleko lokalaren alokatzeari martxoaren amaieran utziko baitio. Behin Barrenkaleko lokala hustuta gero, Irizarren dauden zerbitzuen trasladua hasiko da.

◆ Oldartzen prozesua

Oldartzen prozesuarekin jarraituz, Herri Batasuneko herri asanblada izango da datorren larunbatean, martxoak 18, 15.30etan Arrano Zaharrean. Oldartzen prozesuan, gaur egungo egoera politikoari buruzko enmienda partzialak eztabaidatu eta botatuko dira. Aportazio berriak ere jasoko dira.

◆ Martin Etxaniz

Orfeoiko presidentea


Pasa den otsailaren 23an Orfeoiko zuzendaritza berria aukeratzeko egindako asanbladan, Martin Etxaniz Orfeoiko presidente berria izendatu zuten.

◆ Mariaren Lagundia

Mariaren Lagundia ikastetxeak jakitera eman duenez, datorren asteartera arte, martxoak 14, Haur Hezkuntzako haurrak (2-6 urte), Lehen Hezkuntzakoak (6-12 urte) eta OHokoak (12-14 urte) matrikulatzeko epea irekita egongo da, idazkaritza orduak ohizkoak izango direlarik.

◆ Kartel lehiaketa

Jai Batzordeak Pentekoste jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Bergarako edozeinek parte har dezake eta lanak 50x35 cm.ko neurrikoak izan beharko dira. Kolore eta teknika librea erabili ahal izango dira eta derrigorrezko testua "Bergara 1995 Pentekoste Jaiak" izango da. Lanak martxoaren 27rako entregatu beharko dira Kultur Etxean, egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzealdean ezizen batekin. Sobre itxi batean ezizena bera eta egilearen datuak azalduko dira.



X. Literatur Lehiaketako sari banaketa Bergarako jaietan egingo da.

Literatur lehiaketa konbokatu du Euskara Batzordeak

Bergaran jai, bizi edo lan egiten dutenek har dezakete parte

Udaleko Euskara Batzordeak "X. Literatur lehiaketa" konbokatu du. Bertan Bergaran jai, bizi edota lan egiten duen edonork parte hartu ahal izango du eta edozein literatur jenerotako lanak onartuko dira: ipuina, poesia, kontakizun laburrak eta abar.

Adinaren arabera 6 talde bereiztuko dira: 1987-88an jaiotakoak (gehienez bi orrialde), 85-86an (gehienez bi orrialde) jaiotakoak, 83-84an jaiotakoak (2 orrialde), 1980-82an jaiotakoak (2 orrialde), 1977-79an jaiotakoak (3 orrialde), 1976an jaiotakoak (3 orrialde) eta azkenik, 6. taldean, 1976an aurretik jaiotakoak (3 orrialde) (10era).

Lehen hiru taldeetako lanak ezik, beste guztiak DIN A-4 orrietan tarte bikoitzez, makinaz idatzita

bidali beharko dira, lan bakoitzeko 3 kopia aurkeztuz. Izenaren ordez goitizen batekin sinatuko dira lanak eta beste sobre txiki batean azalean goitizen bera eta barruan egilearen datuak. Guztia sobre haundi batetan sartu eta Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzura bidali edo eramango dira apirilaren 24a baino lehen.

Sari banaketa ekainaren 4an egingo da. Lehen hiru taldeetako sarituei material didaktikoa banatuko zaie. 4. taldeko hiru lehenek 12.000 pezeta, 8.000 eta 5.000ko sariak jasoko dituzte; 5 taldean 24.000, 14.000 eta 8.000 pezeta eta 6. taldean, berriz, 35.000, 25.000 eta 15.000 pezeta. Saritutako lan guztiak epaimahairen esku geldituko dira.

**DENA
100etik**

ZURE OPARIENTZAKO


Simon Arrieta, 3

SIRIMIRI

jatetxea

**PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.**

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19



**LIZAR
ALTZARIAK**

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53


Martxo euritsua: 138 litro metro karratuko 7 egunetan

Aurtengoa ohizkoa baino martxo euritsuagoa da Narbaiza-Bolu baserriko Luis Mari Agirrek eman dizkigun datuen arabera. Horrela, hilaren 1ean 6 litro metro karratuko jaso ziren Bergaran, martxoaren 2an 10 litro, 3an 37, 4an 33, 5ean 35 eta hilaren 7an, berriz, 17 litro metro karratuko. Guztira, 138 litro jaso dira dagoeneko martxoaren hasieran.

Iazko martxoa azken urteotako martxorik sikuenetarikoa izan zen, 57 l/m²ko izan zirelarik. Sikuen 89koa izan zen, 54 l/m²ko eta euritsuena, berriz, 1992koa; orduan 239 litro izan genituen Bergaran.

Aurtengo urtarrilean 159 l/m²ko jaso ziren eta otsailean 278 litro; beti ere Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera. Bere hitzetan, "aurtengo leben hilabeteak normala baino euritsuagoak izan dira eta ondorioz urtegiak toperaino daude. Urtero, bataz beste, 1.400-

1.500 litro m2ko jasotzen dira. Temperaturei dagokienez, biguna da aurtengo negua, urtarrilaren erdi inguruan -6 °C neurtu arren". Agirrek 1983an ekin zion euriak eta tenperaturak neurtzeari eta hilaren azkenean Donostiako Zentru Meteorolojikora bidaltzen ditu datuak.



Erreka hazita joan da egun hauetan.

◆ **Aseguruen hitzaldia**
Gipuzkoako Diputazioak antolatu duen aseguru kanpainaren barruan, datorren asteartean, martxoak 14, aseguruen garrantziari buruzko hitzaldia izango da arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Ondasun eta arriskuen aseguramenduaren garrantziari buruzko informazioa emango da bertan eta hiltzaldira joaten direnek galderak planteatzeko aukera izango dute.

◆ **Goenkaleko aktoreekin solasaldia**
Datorren ostiralean, martxoak 17, Goenkaleko hainbat aktorekin mahai-ingurua izango da Antzuolako zine aretoan arratsaldeko 8etan. Bertan egun horretako episodioa eskeiniko da.

◆ **Korrika kulturala**
Korrika Kulturalaren barruan, igandean, martxoak 12, Andoni Egaña eta Benito Lertxundiren kantaldia izango da 7etan Arrasateko Amaia antzokian.

ARGALTZEKO...


KILO horiek KENTZEKO ERREMEDIO baten BILA zabilta?

BIDERIK ONENA...

NOVALINE

ZURE PISUA ZAINDUKO DUGU

NOVALINE



NOVALINE

NOVALINE

NOVALINE

ZURE PISUA ZAINDUKO DUGU

Biologo dietista. Dieta pertsonalizatuak. HURBIL DIETETIKA. Telesforo Aranzadi, 2 ☎ 76 30 08

Legedia

Ezkontza zibilak

- Oraintsu indarrean jarritako lege baten arabera alkateek ezkontzak egiteko aukera daukate aurrerantzean...


- Lehen ere bazuten aukera hori epaitegirik ez zegoen herrietan. Baina abenduaren 23ko 35/1994 Legeak Kode Zibileko hainbat artikulua aldatzen ditu (49.a eta hurrengoak) eta nobedade nagusiak epaitegia dagoen herrietan ematen da, Gipuzkoan Donostian, Eibarren, Azpeitian, Tolosan, Irunen eta Bergaran hain zuzen ere.

- Zeintzuk dira nobedade horiek?

- Alkateek edota alkateek izendatutako zinegotziek ezkontzak zein egiten zen bezala epaitegian, Registro Zibilean, egin behar da baina konsentimentua epaileak epaitegian eman beharrean, alkateak edo zinegotzi batek eman dezake Udaletxean egokitutako lokal batean. Honela, ezkontideek hori eskatu behar dute Erregistroan espediente bat betetzerakoan.

- Zein da lege honen arrazoia?

- Ba, nagusiki, ezkontideek figura ezagunago batengana jotzeko aukera izatea. Alkatea normalean epailea baino familiarragoa izaten da, demokratikoki hautatzen baitute eta figura hori popularizatzeko batipat



MANU DIAZ
(Abokatua)

egin da legea. Gainera Epaitegian egiten diren ezkontzen inguruan keak izaten dira oso hotzak omen direlako eta alkateek zeremoniari no-

"Epaitegia dagoen herrietan alkateak edo honek izendatutako zinegotziek ezkontzak zein egiten zen bezala epaitegian, Registro Zibilean, egin behar da baina konsentimentua epaileak epaitegian eman beharrean, alkateak edo zinegotzi batek eman dezake Udaletxean egokitutako lokal batean. Honela, ezkontideek hori eskatu behar dute Erregistroan espediente bat betetzerakoan."



Aurreko astean Bilboko Udaletxean izandako ezkontza bateko irudia.

labaiteko berotasuna eman diezaiokete.

Bestalde, alkateak ezkontzaren eguna eta ordua erabakitze eskubidea dauka baina pentsa daiteke aurretik ezkontideekin hitz egingo duela fetxa eta ordua zehazteko. Eta beste herri bateko alkateak ezkontza egiteko aukera ere badago, hala eskatu ezker. Adibidez, Ormaiztegiako alkatea laguna baduzu, edota beste herri bateko udaletxea gustokoago baduzu, aurretik eskatuta eskubide hori daukazu.

- Tramiteak orainartekoak bezalakoak dira?

- Bai, Bergaran Registro Zibilean (3. epaitegian) egin behar da espediente. Orduan adierazi behar duzu ezkontza alkateak egitea nahi duzula ala ez. Ez baduzu zehazten epaileak egin behar du.

- Zeremonia nola da?

- Berdin-berdina. Alkateak Kode Zibileko 66, 67 eta 68 artikulua irakurtzen dizkizu, ondoren ezkontideek beren onarpena ematen dute eta alkateak senar-emazte deklaratu ditu. Bi testigu egotea derrigorrezkoa da eta, nobedade gisa, alkateak zeremoniaren akta jasotzen du, ondoren Registroa bidali ahal izateko.

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



Deco-Textil

ZANGITU

**Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.**

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

ESKOLAURRETIK UNIBERTSITATE EDOTA LANBIDE MUNDURA ARTEKO ESKAINTZA OSOA (2-19 urte)

Eskolaurrea eta Lehen Hezkuntza (2-14 urte)




SAN MARTIN DE AGIRRE



ANGIOZARKO ESKOLA

Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak. Unibertsitate eta lanbide mundura bideak (14-19 urte)



IPINTZA INSTITUTUA



ZENTRU BERRIA



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

MATRIKULA DOAN!!

• D, B eta A EREDUAK:

D DENA EUSKARAZ / **B** ELEBIDUNA / **A** GAZTELERAZ, EUSKARA IRAKASGAI BAT IZANIK

• ARLO GUZTIETAN ESPEZIALIZATUTA:

IRAKASLE ESPEZIALIZATUAK, LIZENTZIATUAK ETA TEKNIKARI PROFESIONALAK

• BEHAR DEN GUZTIRAKO PRESTATUA ETA HORNITUA:

LABORATEGIAK, LIBURUTEGIAK, INFORMATIKA-GELAK, IKUS-ENTZUTEKO GELAK, TAILERRAK...

AURREMATRIKULATZEKO EPEA:

SAN MARTIN IKASTETXEA: MARTXOAREN 1etik 15era (2 URTEKO GELA, AURRESKOLA, OHO)

IPINTZA ETA MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAK: MAIATZAREN 3tik 14ra.

MARTXOAREN 11n SAN MARTIN IKASTETXEAK ESKOLAKO ATEAK IREKIKO DIZKIE GURASOEI ETA KANPOKO JENDEARI IKASTETXEA BARRUTIK EZAGUTU DEZATEN.

2 URTETIK 19 URTERA ARTEKO EUSKAL HEZKUNTZARAKO BIDEA

Udaletxea

historian zehar

1567an aipatzen da lehen aldiz Bergarako kontseilu Etxea

Udaletxeko lanak amaitu dira eta hilabete amaierara arte Pleno Aretoan berari buruzko erakusketa izango da ikusgai. Bertan Udaletxearen historiaren eta azken obren inguruko informazioa jaso ahal izango duzue. Hurrengo bi orrietan ere Udaletxearen inguruko historia eta nola gelditu den jakiteko aukera duzue.

Ertaroko Udal antolaketak, herri bilerak, irekiak alegia, ez zeukan egoitza finko baten beharrik. Baina 1480. urtean Errege Katolikoek Udal bilerak egiteko eraikuntzarik ez zuten herrietan Udaletxeak egiteko agindua luzatu zuten.

Halere Euskal Herriko Udaletxe gehienak XVII eta XVIII. mendeetan eginak dira. Gure herrian 1567an aipatzen da lehen aldiz Bergarako Kontseilu etxea.

Lehen Udaletxe hori gaur egungoa dagoen tokian zegoen kokatua eta 1617an Udaletxeak berri-tze lanen premia izan zuten barriz ere. Obren ardurak Andres de Larrinagak hartu zuen eta 19 hilabete pasa ondoren bukatutzat eman zituen lanak, baina obrak finantziatzeko zailtasunengatik 1.628ra arte ez zuen kobratu. 1673an, orduko

alkate zenak, Nicolas Antonio de Madariaga jaunak, udaletxe eta gartzela berria eraikiteko proposamena egin zuen. Udaletxe berria, herritar guztiak tokia izan zezaten; eta, kartzela berria, aldiz,

kalabozotik errazegi ihes egiten zutelako presoek. Baina Udal baliabideak nahiko urriak zirenez, dirua ateratzeko zerga berriak ezarri zituzten. Horrela, 1674an Carlos II.ak Udalarai baimena eman zion sei urtez ardo saltzaileri zergak kobratzeko, obrak egiteko beharrezkoak ziren 28.000 dukatak lortu arte.

Lucas de Longaren Udaletxea

1676tik 1679ra Udaletxearen inguruan zeuden lur zatiak erosteari ekin

zioten eta azken urte horretan Udaletxe zaharra bota egin zuten berriarekin hasteko. Obraren ardurak Lucas de Longa arkitektoaren esku gelditu zen eta honek gaur egungo Udaletxearen egitura egin zuen.

Halere 1685ean arazoak izan ziren eta obra eten egin zen. Halaber, Bergaratik Orduñara joateagatik Longa obratik kanpo utzi zuten, igeltseritza, zurgintza, mihiztadura eta balkoietako lanetatik. Udaletxe berriaren obrak aurrera eramateko zergak bitartez ate-



1673an, Nikolas Antonio de Madariaga Alkate Jaunak, udaletxea eta gartzela berria eraikiteko proposamena egin zuen.


ratako dirua nahikoa ez zenez, zilarrezko 400 dukateko mailegua eskatu behar izan zuten. Horrela, 1700. urterako Udaletxearen obrak amaitutzat eman zituzten, beste gauza batzuren artean, balkoietako burdinsareak edo ubideak egin gabe gelditu ziren arren.

Baina urte batzuk beranduago Udaletxe ondoran zegoen lur saila erosi eta berriz ere Udaletxea handitu egin zuten. Obra nagusiak amaituta zeuden, baina oraindik xehe-tasun batzuk falta zirenez, horiek ordaintzeko, 1729-an ardo pitxer bakoitzari sei maraitako zerga jarri zioten, azken detaileekin amaitzeko. Harigintza, igeltsugintza eta zurgintza lanak Juan Bautista Jauregi arkitektoaren erizpideei jarraituz egin ziren.

Estilo arkitektonikoari dagokionez eraikuntza barroko garaiko Gipuzkoako udaletxeen eredu-tzat jo daiteke eta monumentu historikoa da. Orain arte Bergarako Udaletxearen historiari buruz aipatutakoak Mari Jose Aranburu eta Jesus Gil Massa "Artea Bergaran. Erdi eta Moderno Aroak" liburutik ateratakoak dira.

Apirilerako Udaletxea zerbitzua ematen

Victoriano Gallastegi alkateak adierazi duenez Udaletxean apirilean hasi-



Udaletxearen inguruan egin den erakusketa hil amaierara arte ikusgai izango da Areto Nagusian.

ko dira langileak eta trasteak sartzen eta hori egin bezain laister herritarrentzat zabalik izango da.

Nola banatuko da?

Egun hori heltzen denerako zer aurkituko duzuen jakiteko Udaletxea, nola banatuko den adieraziko dizuegu. Sotoan

Udal Artxibategia, Udal-tzainen aldagelak, igogailuaren eta aire egokitua-ren makinaria joango dira. Behe solairuan Kontuhartzaitza, publikoarentzako atentzioa eta Kirol Zerbitzua joango dira.

Lehen solairuan, aldiz, idazkariaren eta Alkatearen bulegoa, Euskara zerbitzua, Pleno Aretoa eta

Pleno Aretorako biltegia, eta Batzordeetarako eta prentsa harremanetarako gela izango dira. Bestalde, bigarren solairuan, Ongizate eta Hirigintza zerbitzuak izango dira.

Azkenengo solairuan, lehen ganbara izandakoa, 8 bulego daude alderdi politiko eta langile komitearentzat.

1674. urtean Carlos II.ak Udalari baimena eman zion sei urtez ardo saltzaileei zergak kobratzeko, obrak egiteko beharrezkoak ziren 28.000 dukatak lortu arte

ARREGI
Eraikuntza materialeak
 Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
 Tfnoa: 76 27 93

MUJIKA
Jantzidenda
 Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

AGOITZ
Tapizdenda
 San Lorentzo, 25 BERGARA
 Tfnoa: 76 18 23

Gaia lantzen.....

Organo emaria: bizitzak jarraitu dezan

Gai honen inguruan dagoen informazio eskasiak, euren bizitza organo emari eta birlandaketaren menpe dutenentzat oztopo gaindi ezina suposatzen du.

ZEINTZUK DIRA ORGANO EMALE?

Birlandaketarako erabilgarri diren organoen lorpena, emale gai izan daitezkeenak detektatzearekin hasten da. Emale gai honek jarraian datozen baldintzok bete behar ditu:

- Traumatismo kraneal edo zirkulazio gaisotasun (normalean hauek dira arrazoiak) baten ondorioz hildakoa, baina ospitalean bertan. Ez da ospitaletik kanpo hildako emale gaien organorik onartzen.

- Kantzerra, gaisotasun kutsakorra edo eman beharreko organoan gaisotasuna izatea, organo hori

ez jasotzeko arrazoi dira.

- Adinak ere badu garrantzirik: emale gaiak 60-65 urte baino gehiago badauzka, giltzurrunak ez dira baliogarri.

- Lehenengo balorazioaren ondotik, emalearen tipaia (matrikula) egiteko ganglio txiki bat erauzten da. Honek, ondoren organo hartzaile egokiena aukeratzeko balio du.

Analisia erauzitako ganglioaren globulu zuriekin egiten da.

- Elektrokardiogramak laua izan behar du. Emalearen heriotza, birlandaketan parte hartuko ez duten medikuek ere konfirmatu behar dute.

- Azkenik, familiak ere organo emaria baimendu behar du.

GILTZURRUN BIRLANDAKETA IZAN DUENAREN BIZI KALITATEA

Ohizkoa da organo birlandaketa jaso duen pertsonari hauxe entzutea: "berriz jaio naiz". Gizarte-sikologia ikuspuntutik, makinari lotuta egon beharrrak, gaisoari ezaugarri batzuk dakartzio: autoestima galera, heriotzari beldurra, irritabilitatea... Guzti horri gaisoak "giltzurrun artifizialari" lotuta astero pasatu behar dituen ordu kopurua gehitu ezker, erraza da pertsona horren giza erlazio eta lan aktibitatea guztiz aldatzen ari direla ulertzea, kasu batzutan lana galtzera arte.

Aipaturiko faktore guztiak, organo birlandaketa

egin ondoren gainditzen dira, ikuspuntu mediku zein siko-sozial batetik begiraturaz, gaisoen errekupe-razioa harrigarria izaten baita gehienetan.

NOLA EGIN EMALE?

Osakidetza eta Alcer-en (giltzurruneko gaisoen elkartea) badira zenbait orri informatibo organo emari eta birlandaketari buruzkoak. Izen-emate orria ere badute, aipaturiko erakundeetara bidali beharrekoa, eta ondoren bueltan, emale karneta jasoko da.

Helbide eta telefonoak:
Araba: Arquillos, 9 behea. Gasteiz.

Tfnoa: (945) 23 18 95.

Bizkaia: Iparragirre, 54-1. Bilbo

Tfnoa: (94) 444 15 16.


Gipuzkoa: Balleneros, 22 behea. Donostia

Tefnoa: 46 90 47.

TESTUA:

**AINHOA ARRIZABALAGA
PILI QUINTAS
ESTHER ORTIZ DE ZARATE
NURIA DEL RIO
YOHANA DEL RIO**

FP2 2. MAILA



.....9 galdera motz

7 urte daramatza Mariaren Lagundian klaseak ematen eta bere ikasleek egiten duten lanarekin oso gustora dago



Gotzon Iparragirre
Irakaslea

- 1 Jatorriz nongoa zara?**
Antzuolarra. Bizi ere Antzuolan.
- 2 Aldatuko al zinateke berriz?**
Ez. Aldatzekotan Donostiara joango nintzateke.
- 3 Zergatik sartu zinen irakasle?**
Atsegin dudan mundua delako.
- 4 Izan al zara beste ikastola bateko irakasle?**
Bai Aranzadi Ikastolakoa.
- 5 Zein kurtsotan ematen dituzu klaseak?**
OHOkoi Goi Zikloan eta Batxiler Orokorrean.
- 6 Tutorea al zara? Zein klasetakoa?**
Bai, Batxiler Orokorreko 2. mailan.
- 7 Nola portatzen dira zure klaseko ilasleak?**
Oso ondo, ikasle onak dira, ejenplarrak.
- 7 Zein da ikasketa gairik interesgarriena?**
Izaki bizien mundua.
- 9 Pozik BERRIGARAN agertuko zarelako?**
Ez atzo baino poziago; ez bihar baino tristeago.

Txisteak



David Alonso
de la Lama

IKUSI ZUEN

Badoaz bi lagun kaletik eta esaten dio batak besteari:
- Atzo zure arreba ikusi nuen baina bera ez zen konturatu...
Eta besteak erantzuten dio:
- Badakit, esan zidan.

BURUSOILA ETA HIPPIEAK

Burusoil bat hippie batzuen aurrealdetik pasatzerakoan, hauek esaten diote:
- Ideiak ikusten zaizkizu.
Eta burusoilak erantzuten du:
- Eta tontolapikoak jartzen duela?

Jolasean.....


Hizki Zopa

Aurki itzazu 10 narrastiren izenak

- SOLUZIOA:
- Kamaleia
 - Herensugea
 - Sugegorria
 - Zapoa
 - Ziraua
 - Boa
 - Dortoka
 - Muskerra
 - Sugandila
 - Sapaburua

S	A	P	A	B	U	R	U	A	Z	U	S
U	F	X	Y	J	O	L	D	I	M	O	U
G	R	S	I	A	R	M	O	T	S	M	G
E	A	E	G	U	S	T	R	N	F	U	A
G	O	H	I	J	K	L	T	M	N	S	N
O	P	I	S	T	U	B	O	A	O	K	D
R	A	M	I	E	O	L	K	S	K	E	I
R	Z	I	R	A	U	N	A	I	R	R	L
I	J	B	L	M	R	I	T	A	B	R	A
A	L	W	X	I	O	R	E	S	T	A	E
H	E	R	E	N	S	U	G	E	A	T	G
K	A	M	A	L	E	O	I	A	N	J	I

Pake Konferentzia dela eta, pakea lortzea posible ikusten duzu?




Javier Barrenetxea
50 urte, langilea

Bai, posible ikusten dut baina nere ustez politikoeek orain egiten duten baino gehiago egin beharko dute hori lortzeko. Orainarte gauza gutxi egin dute.



Anabel Fernández
43 urte, etxekoandrea

Hori bai zaila dela. Herri txiki batean edota familia batean nekeza da pakea sortzea... Borondatea egon behar da eta bakoitzak bere kriterioa inposatu nahi du.



Martin Mujika
36 urte, langabetua

Bueno, denen artean zertxobait jartzen badute, zerbait lortu daiteke. Zenbat eta lehenago lortzen den hobeto.



Maria Olimpia
73 urte, etxekoandrea

Guztiok zerbait aportatzen badugu bai behintzat. Borondate pixka bat gehiago egongo balitz hobe baina Konferentzia antolatzea lehen pausu bat izan daiteke.



Felix Ignacio
38 urte, langilea

Lehen kontaktu batetik hasi behar da behintzat. Hobe guztiak ados egongo balira baina... Baina borondatea baldin badago optimista naiz.



Laura Martin
22 urte, ikaslea

Oso zaila da baina posible ikusten dut, gero eta gutxiago falta da nere ustez. Hor dago Irlandaren kasua: han lortu badute hemen ere beste horrenbeste gerta daiteke.

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA
UNITATEA
Garcandia Doktorea


PATOLOGIA DIGESTIBOEN
UNITATEA
Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA
GINEKOLOGIA UNITATEA
Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA
UNITATEA
J.R Fernandez

ZIRUGIA
UNITATEA
Alberro Doktorea

Ramon Maria Lili, 2 • Tfnoa: 76 59 39 / 72 • Faxa: 76 25 72



Baita Bergaran ere...

Urte asko daramatzagu herri honetan gatazkan murgildurik. Gatazkan parte hartzen dutenek darabilkiten estrategiak goiak jotzen hasiak direla sinisten dugunok, gero eta gehiago gara, zorionez. Arazoa ez da arrazoia nori eman eztabaidatzen jarduntzea, baizik eta behin betikoz, konponbidera hurbilduko gaituen benetako urratsak ematen hastea. Askok guztiz bestelakoa uste badute ere, eztabaida falta izugarria dago Euskal Herrian. Zenbatetan hitzegiten dugu gatazkaren inguruko gorabeheraz "berdin" pentsatzen ez duen lagunarekin? Geure eritziak kontrastatzerakoan, edo pentsakera berdintsuko kideen artean egiten dugu, edo haserre eta elkarri erasoka amaitzen dugu. Inkomunikazioak janda gauzka, eta hala ere, denok gara egia borobilaren gidari.

Hitzak eta hizkuntzak distentsiorako tresna egokiak ditugu. Bost egunetan zehar, Euskal Herrirako Bake Konferentziaren Lehen Topaketa burutu behar da Bilbon. Elkar murturka dauden jarreraren arteko inkomunikazioa, bakerako eragozpen garrantzitsu bat den testuinguru honetan, Topaketa hau, indar politiko esanguratsuenen arteko elkar-ulertzea eta elkarrizketetarako topagunea izan nahi duen helburuarekin antolatuta eta bultzatuta da; gatazka konfrontazioaren eskentokitik ateratzeko ahalegin bat gehiago bezala. Gatazkaren konplexutasuna ikusiaz, ez dugu lehen Topaketa hau bat-batean konponbidezko formula magiko bat bezala ikusten. Uste dugu era honetako esperientziak beste toki guztietan bezala Bergaran ere bere islada eduki beharko lukeela, bai Udal politikan, bai eta herritarren harremanetan.

Alex BARRUSO ELKARRI



Soluziobideak aurkitzen

Martxoaren 8tik, eguastenetik, aurrera Elkarri talde bakezalea konferentzia bat ospatzen ari da, Euskadiren bakea gai nagusi modura hartuta.

Jakina, halako berriak gogo onez hartu beharra daukugula eta daukaten balioa eman behar zaiela, eta are gehiago mugimendu abertzalearen ingurutik sortutako taldea izanik Elkarri.

Izan ere, gustatu edo ez, oso inportantea da gizarteko sektore guztietatik ideiak sortzea, biolentziaren gaiak konzientziaz eta, aldi berean, liskarrean dabilzan alde desberdinak soluziobide sendoak ematen saiatzea.

Penagarria iruditzen zait azken orduan indar politiko batzuen arteko polemika dela eta gertatutako desmarkea. Beren arrazoiak izango dituzte, baina nere ustez ez da ezer apurtzen asanblada horretako erabakiekin zerbait positiboa eskaini baizik; erabaki horiek positiboak izango direla espero baitut.

Antonio HERZOG BERGARARRAK PAKEAREN ALDE



DANTZA IKASTAROA

Fandangoa eta Arin-Arina

IRAKASLEA: Eduardo Muruamendiaraz

NOIZ: Asteartetan, martxoaren 28tik maiatzaren 9ra arte


ORDUTEGIA: Iluntzeko 8etatik gaueko 10etara

PREZIOA: - JARDUNeko bazkideak: 3.000 pzta.

- Bazkide ez direnak: 3.500 pzta.

IZEN-EMATEA: JARDUNen edo 76 08 19 telefonora deituz

APUNTATZEKO AZKEN EGUNA: Martxoak 24



Zikloturisten irteera

Aurreko igandean **Bergarako zikloturistek** hasiera eman zioten aurtengo denboraldiari

Dorletako Amabirjinari egindako ohizko bisitarekin.

Eguraldiak ez zuen batere lagundu eta gutxi izan ziren ibilbidea bizikletarekin egitera ausartu zirenak.

Txirrindulariek lore-sorta ederrak eskeini zizkieten Dorletako Amabirjinari aurten ere errepidean beharrezko laguntza eman diezaien. Ondoren zikloturistek luntx bat izan zuten. Hemendik aurrera jo eta ke ekingo diote kilometroak egiteari...



Argazkian, igandean Dorletako Amabirjinari lore sorta eskaini zion zikloturista talde bat.



Miserableen agurra

Musika Eskolaren "Miserableak" ikuskizunaren azken emanaldia izango da datorren ostiralean, martxoak 17, Arrasateko **Amaia antzokian**. 1994ko urtarrilaren 6an estreinua egin zenetik Musika Eskolakoek 9 emanaldi eskertu dituzte Euskal Herrian zehar eta 10.000 ikusletik gora izan dira emanaldi ezberdinetan. Beren asmoa azken emankizuna estreinatu zen tokian (Bergarako Frontoian hain zuzen ere) egitea zen baina arazo teknikoak direla medio ezinezkoa izan da. Beraz, Miserableei azken agurra emateko Arrasatera joan behar... Zur malko bat baino gehiago izango dela ikusle... eta partaideen aldetik.

Miserableen azken emanaldirako sarrerek Ariznoan, Usoan, Lazkano oinetakodendan eta Musika Eskolan.

Artekale, 27
 ☎ 76 50 80
 (Gaueko 9etatik aurrera)



ATABAKA
Bittoriano Larrañaga
SALEROSKETAK

ANTZINAKO GAUZAK • ALTZARI ZAHARREN KONPONKETA ETA BERRIZKETA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna
 Kruz Gallastegi BERGARA

100 urte



Gregoria Elgetak 100 urte beteko ditu martxoaren 12. Gregoria Elgetak berri jaiotzen 102 urtekin etorri zen haurrak. Gregoria Elgetak Juan baserrira. Gregoria Elgetak azaldu digun Gregoria Elgetak, haurrak beti Gregoria Elgetak izan zaizkio Gregoria Elgetak lanak Gregoria Elgetak izan zituen Gregoria Elgetak: "lan asko egin nuen

Gregoria Elgetak diru gutxi aurreztu" esan digu umorez. Sebastian Azpeitia irakaslearen alarguna, Gregoria Elgetak osasunez ondo dabil. 100 urtera iristeko sekretua inguruok maitatzea dela dio eta, horren gain, ingandean Erresidentziako lagun guztiekin ospatuko du bere lehen mendeurrena. Zorionak!!

Zertan dihardute ba?



Maite Toledo

Bergaran bizi den 28 urteko antzuolarra Udaleko Kontuhartzaitzako administrari berria izango da. Lehiaketa publikora ateratako lanpostu honetara 80 bat lagun aurkeztu ziren eta, beharrezko probak gainditu ondoren, Maite Toledok eskuratu du.

Maitek Administrari ikasketak egin zituen Miguel Altuna Institutuan eta azken zortzi urteetan Udal Euskaltegiko idazkaria lanetan aritu da. Maitek lanez aldatu nahi izan du. Bere hitzetan, "pozik nago lanpostua eskuratzeagatik, aldaketa onerako dela uste baitut. Ikusi behar... Ez, oraindik ez dakit noiz hasiko naizen".

Emakumea protagonista

Astelehenean hasi ziren Emakumearen Jardunaldiek jarraipena izango dute astebukaera honetan ingandean **Dzanga** taldeak eskeiniko duen "Bibozkadak" antzezlanarekin. Ikuskizun honetan dantza, antzerkia eta poesia tartekatzen dira eta Amaia Cuende, Ainhoa Almandoz, Izaskun Lopetegi eta Nagore Orbelzuk lau emakumeren bizitzako garai ezberdinei erreparoa ematen diete. Bestalde, astean zehar ere Emakumearen Egunaren inguruan antolatutako hainbat ekitaldi izan dira.



Nati Abril EHUko irakaslea "Emakumea komunikabideetan" gaiari buruz mintzatu zen astelehenean Kultur Etxean.

LXLIKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

ARDATZA
Brikolaketa
 Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Balen Kalboetxeaga

27 urteko gazte honek pistinetako tabernatik irten eta gitarra hartzen du. Soul Asylumen musikarekin oheratzen da eta Harrison Ford izatearekin egiten du amets.

- Noiztik tabernari?
- Orain dela 4 urtetik.
- Musika talde batean ere jotzen duzu..
- Bai, lehen Spok-en baina orain taldea desagertu egin zenez, Txokolate Revenge-ko gitarrajole eta abeslaria naiz.
- Nolako musika jotzen duzue.
- Noise erakoa, pop, rock...nahasketa.
- Jendaurreko aurkezpena noiz?
- Bergarako jaietan.
- Diskoa noizko?
- Buff... maketa grabatzeko asmoa badugu baina diskoa... diskoetxeak nahi duenean.
- Zein talderekin gustatuko litzaizuke jotzea?
- Dinosaur Jr., El Inquilino, Amasay... era honetako musika egiten baitugu.
- Idolorik baduzu?
- Ez, ez dut horren beharrik.



"Txokolate Revenge taldeko kitarrajole eta abeslaria naiz. Bestalde, Budismoak asko erakartzen nau. Tabernan ura eta freskagarriak edaten dituzte gazteek gehienbat eta zaharrek ardaa edo garagardoa"

- Tabernan nor gonbidatuko zenuke?
- Neska-laguna.
- Nori botako zenioke ardaa burutik behera?
- Edozein politikori.
- Bixamona kentzeko trukorik badakizu?
- Beste mozkor bat harrapatzea.
- Pistinetan zer edaten da?
- Gazteek gehien ura eta freskagarriak, helduek ardaa edo garagardoa.
- Jatea ala janaria prestatzea?
- Jatea, jakina! Anaiak edo Rafak gertatutako zerbait.
- Gaua ala eguna?
- Gauza batzutarako eguna, beste batzutarako gaua, baina... biak.
- A. Christie ala Atxaga?
- Azkenengo irakurri dudana liburua Sidartha da, budismoari buruzkoa.
- Budista bihurtuko zara?
- Ez dut uste, baina asko erakartzen nau.
- Kotxea ala motorra?
- Motorzalea naiz, gainera 15 bat motorzale ibilaldiak-eta egindakoan hemen elkartzen gara.
- Zein aktore izatea gustatuko litzaizuke?
- Harrison Ford, baina ez duen itxuragatik, egiten dituen pelikulengatik.
- Zure azken abentura?
- Jendearekin ondo konpontzea.



zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

KONDE



PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoo dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ETXEBIZITZA

Pisua eta lonja salgai Osintxu auzoan.
☎ (945) 25 19 64.

Pisua salgai Osintxun. 3 milioi. ☎ 76 49 12.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Garajea salgai Boni Laskurainen. ☎ 76 15 64.

Baserrria salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea salgai Antzuolan (Ibarrondon). ☎ 76 63 65.

Pisua alokairuan Elgetan. ☎ 76 81 42 (Mertxe).

Bi pisu alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisu bat alokatzen da Martxiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauzez).

Etxe bat erosiko nuke Bergaran. ☎ 79 78 65.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Garajea saltzen da Zurra-dero 2an. ☎ 76 12 42.

DENETARIK

Musika bateria salgai. Ia berria. ☎ 76 08 58.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Braco aleman txakurrak salgai. ☎ 76 10 79.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun akordeoia erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Urrezko pultsera bat galdu dut Miren izenarekin. ☎ 76 40 50.

Ahoko aparatu bat galdu duenak Udaltzainetan jasoz dezake.

Motorrak eramateko karrero bat erosiko nuke. ☎ 78 18 58 (Jose Mari).

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauzez).

Reflex Minolta argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objektiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Sega Megadrive kotsola eta 2 joku salgai. 15.000 pezeta. ☎ 76 39 77.

Erabili gabeko kuna berri bat salgai. Osorik. ☎ 76 08 51.

Geace's paseorako bizikleta egoera onean salgai (ia berria). 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Korreosetarako oposizioak gertatzen dira. ☎ 76 08 53 (10.00-15.00).

Matematika eta Zientziatako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta Lanbide Heziketako klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauzez).

Zuzendaritza Idazkaritza ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

Ingeles Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 87.

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Arrazadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

IKUSI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irizar, 2 ☎ 76 53 09

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

iletxo

ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktoea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15



BONOFOTOA



Naroa Bengoa

Naroa Bengoa jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen iturri zaharra non dagoen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Zabalotegin**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Naroa Bengoari** eman dizkiogu. Zorionak!!

XIII. mendean Erregeak fundazio eta izate agiria (Herri berri agiria) eman zion gure herriari, "Villanueva de Vergara" izena ezarriz. Nor zen Erregea eta zein urtetan gertatu zen hura?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	A
1. Madura	12	8	5	2	1	29	13	m u l t z o a
2. Errotagain	11	7	5	2	0	34	10	
3. Kabia	10	8	4	2	2	32	18	
4. Bildurbarek	7	8	3	1	4	31	34	
5. Arloteak	7	8	2	3	3	21	25	
6. Ozaeta	7	9	3	1	5	27	31	
7. Ufala	7	7	3	1	3	26	30	
8. Angiozar	7	8	4	1	3	30	36	
9. Bar Canalejas	6	8	2	2	4	25	27	
10. Mongatxurra	5	9	2	1	6	17	32	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	B
1. Arkupe	14	9	7	0	2	63	30	m u l t z o a
2. Usoa	13	9	5	3	1	25	15	
3. Ogizun	12	8	5	2	1	28	14	
4. OH Zerezos	12	8	6	0	2	35	26	
5. Pagomendi	11	9	5	1	3	33	30	
6. Etxagi	10	9	5	1	3	40	36	
7. Kayak OJ	6	9	2	2	5	15	34	
8. Revienta	6	9	2	2	5	28	59	
9. Guadalest	2	9	1	0	8	1	8	
10. Ube Bikoitza	0	9	1	0	8	16	32	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	C
1. Hartu Zamak	14	8	7	0	1	54	12	m u l t z o a
2. A Ze Flaxa	14	8	7	0	1	31	18	
3. Etxenagusia	12	7	6	0	1	47	20	
4. Nahikari Hooll.	9	8	4	1	3	24	26	
5. Kriterium	5	7	2	1	4	20	19	
6. Eri	5	7	2	1	4	20	26	
7. EH Biterrak	4	7	1	2	4	13	31	
8. Amozkibar	2	7	1	0	6	14	46	
9. Soropotroak	1	7	0	1	6	17	42	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	D
1. Ezinleike	11	8	5	1	2	27	22	m u l t z o a
2. Kirolzaleak	10	6	5	0	1	40	14	
3. Nekrofilikos	8	7	4	0	3	33	26	
4. Igandekoak	7	7	3	1	3	41	27	
5. La Juve	7	6	3	1	2	27	35	
6. Ari Ari	7	8	3	1	4	20	38	
7. Shaktale	5	6	2	1	3	14	26	
8. Krai	3	8	2	1	5	24	29	
9. Const. Bregara	-2	8	2	0	6	11	20	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	E
1. Txipiron	12	7	5	2	0	27	8	m u l t z o a
2. Los Txupeta	11	7	5	1	1	51	12	
3. Pata Negra	10	7	5	0	2	34	15	
4. Pikapiedras	8	7	3	2	2	22	48	
5. Labegaraieta	5	7	2	1	4	33	32	
6. Aldoka Maldoka	5	7	1	3	3	26	39	
7. Patxaran Team	1	7	1	1	5	19	29	
8. Paok San Juan	0	7	0	2	5	11	40	

emaitzak

Madura-Ozaeta **8-0**
 Arloteak-Mongatxurra . **1-0**
 Canalejas-Bildurbarek . **4-4**
 Errotagain-Kabia **2-2**

Uve Bikoitza-Kayak **0-1**
 OH Zerezos-Revienta ... **13-6**
 Arkupe-Ogizun **1-5**

EH Biterrak-Kriterium .. **1-1**
 Amozkibar-Etxenag. **2-21**
 Eri-Nahikari Hooll. **4-5**
 H. Zamak-A Ze Flaxa **0-3**

Shaktale-Kirolzaleak **2-8**
 Ezinleike-Nekrofilikos .. **1-3**
 C. Bergara-Ari Ari **3-4**

Txupeta-Pikapiedras ... **25-0**
 Pata Negra-Aldoka **10-2**

partiduak

LARUNBATA

Barruan

9.00: Nekrofilikos-Kirolzaleak
 Shaktale
 19.30: Errotagain-Ufala
 Antolaketa Batzordea

Kanpoan

10.00: La Juve-Shaktale
 Kirolzaleak

IGANDEA

Barruan

9.00: Kirolzaleak-La Juve
 Igandekoak
 10.00: Shaktale-Igandekoak
 Kabia
 11.00: Angiozar-Kabia
 OH Zerezos
 12.00: OH Zerezos-Ogizun
 Bildurbarek OPEL/LAM
 13.00: Bildurbarek-Errotagain
 Ogizun
 16.00: Amozkibar-EH Biterrak
 Madura
 17.00: Bar Canalejas-Madura
 Ufala
 18.00: Arloteak-Ufala
 Soropotroak
 19.00: Soropotroak-Etxenagusia
 Kriterium
 20.00: Kriterium-Eri
 Etxenagusia

OHARRAK:

Beltzez agertzen diren
 ekipeok partiduak arbitratu
 beharko dituzte.
 Astelehenean arratsaldeko
 7etan Kultur Etxean Kopa
 txapelketarako kanporaketak
 zozketatuko dira.

Iban Etxeberria

Bergarako golegile nagusia

Iban Etxeberria da aurten B.K.E.ko Preferente mailako golegilerik onena 15 golekin. Zazpi urte daramatza taldean eta orainarte golak nahi beste heldu ez badira ere, aurtengo denboraldia bukatzeko 13 jardunaldi falta direnean marka bikaina lortu du.

Etxeberria 16 urterekin igo zuten B.K.E.ren nagusien taldera eta ordutik hona, gorabeherekin izan bada ere, urtero egon da talde nagusian. "16 urte nituenean lehen taldera igo ninduten eta hori oso gogorra izan zen niretzat. Jubeniletan oso ondo gertatzen eta hortik lehen taldera igotzea oso gogorra izan zen niretzat. Asko kostatu zitzaidan kategoria berrira moldatzea eta badirudi egindako lana fruituak ematen ari dela aurten".

Izan ere, zazpi urte hauetan Etxeberriak ez du igandero jokatzeko aukerarik izan eta aurten hamaikako titularrean maizago jokatzeko ari da. "Orain arte ez dut izan jarraikortasunik hamaikako titularrean, lesioak zirela edo entrenadorearen konfidan-

tza falta zela ez dut jarraipenik izan. Aurten 8 partidu jarraian jokatzeko daramatza eta hor daude emaitzak".

Preferente mailan joan zen denboraldian sartutako 8 golak dira bere topea eta 13 partidu falta direnean dagoeneko 15 gol sartu ditu. "Ezin daiteke esan zenbat gol sartuko ditudan denboraldi honetan, baina espero dut arratxa onak jarraitzea" adierazi digu. Aurten Muniñeri sartu zizkion 3 golak dira bere errekorra, baina infantiletan Eskoriaztari sartutako 8 golak dira bere topea.

Askotan gertatzen den bezala etxeko produktuak kanpokoak baino gutxiago baloratzen ditugu eta alde horretatik Etxeberriak Agorrosinera joaten diren ikusleek kritikak askotan entzun behar izan ditu. "Askotan ez, beti kritikatu izan naute ikusleek. Ez dakit zergatik, hori ikusleei galdetu beharko diezu, baina niri egia esanda orain ez didate kritikek askorik afektatzen, obitu egin bainaiz".

Etxeberriak golak sartzearen meritua talde osoaren lan onari esker dela



Bergarako kañeroak 13 gol daramatza denboraldi honetan.

aitatu digu, izan ere 3. mailara igotzeko promoziotik 3 puntura daude. "Taldea ondo ari da eta konfidantza

gebiagorekin gabiltza. Horrela jarraitzen badugu uste dut badugula zerbaitegiteko aukerarik eta zorte pixka batekin ea 2. buka-

Izkutuko kontuak

Adina? 22 urte

Ze ikasketa? Zuzenbidea 3. mailan

Kodro ala Zamorano? Zamorano

Beste kirolik? Danetik pixka bat

Golak hankarekin ala buruarekin? Berdin zait

Toshack ala Iriarte? Iriarte

Aurten zein aurretik Realala Athletic? Reala

Neskak futbolean bai ala ez? Bai

Gorlako lgoerara joango al zara? Ez dut uste

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

Simon
Arrieta, 3

Gorka

**OINETAKOEN
KONPONKETA**

Mota guztietako konponketak Bizkortasuna eta garantia osoa

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-Ilintxa

Lehen erregionala.

Igandea, 16.45. Ipintza.

Bergara-Antoniano

Lehen mailako jubenilak.

Larunbata, 15.30. Ipintza.

Bergara-San Patricio

2. mailako jubenilak.

Larunbata, 17.15. Ipintza.

► **Eskubaloia**

Bergara-Ordizia

Kadete mutilak.

Larunbata, 16.15.

Bergara-Urduliz

Senior mutilak.

Larunbata, 18.00.

Bia Kiroldegian.

► **Pelota**

PROFESIONALAK

Ansotegi eta Errasti II /

Telletxea eta Azkarate

Etzaniz eta Zezeaga /

Eugi eta Galarza

Kalonge eta Astarloa /

Oregi anaiak

Larunbata, 16.30.

Udal Pelotalekuan.

PALA TXAPELKETA

Osintxuko frontoian

jokatzen ari den Pala

txapelketako bigarren

faseko 2. jardunaldiko

partiduak, zapatuan

14.00etatik aurrera.

Gorlako igoera:

Txirrindulariekin zita igandean

Igandean jokatu da XXI. Gorlako igoera beterrano eta afizionatuentzat. Goizeko 11.30etatik aurrera Euskal Herritik eta kanpotik etorritako txirrindulariak Santi Blancok eta Jose Fernándezek iaz utzitako lekukoa hartzen saiatuko dira.

Oraindik antolatzaileek ez dakite zenbat txirrindulari izango diren igandean Gorlako maldetan, baina segurua da Euskal Herriko talde afizionatu guztiak bertan izango direla eta kanpotik ere punta puntako txirrindulariak izango ditugula, 90 txirrindulari baino gehiago bilduko direlarik profesionaltasunaren atak zabaltzen dituen igoera irabazteko asmoz.

Xabier Gabilondo, bergarar bakarra

Igandeko proban bergarar bakarra izango dugu, Lekeitaldeko *Silloniz* taldean korritzen duen Xabier Gabilondo afizionatua hain zuzen ere. Inigo Igartua irteeran egongo zela komentatu da egun haueetan baina ez du igoeran parte hartuko Mountain Bike lasterketa bat baitu.

Bestalde, beterranoetan, Igarzak ezin izango du korritu gaisorik baitago. Ga-


bilondok hiru urte daramatza afizionatuetan korritzen eta iganderako bukatzearekin nahikoa duela adierazi digu. *"Duela hiru urte korritu nuen eta 25. postuan sailkatu nintzen. Kontutan izanda talderik onenak etortzen direla nabiko postu ona da. Aurten bukatzearekin uste dut nabikoa egingo dudala"*.

Proba irabazteko fabroritorik nagusien izenak eskatu dizkiogu Gabilondori. *"Oso zaila da asmatzea, baina Unai Osa eta Aitor Bugallo dira niretzat favorito nagusiak. Gero,*

profesionaletan ibilitako Inaki Aiarzaguena eta Inigo Garrues ere hor daude".

Beteranoen lasterketa goizeko 11.30etan hasiko da eta afizionatuek, berriz, eguerdiko 12etan. Gorlarako bidea 11etan itxiko da eta 30 bat lagun arituko dira antolakuntzan.

Aurten ezin izango da Santi Blancok iaz egindako 20 minutu eta 33 segunduko marka hobetu. San Pedro kalea moztuta dago eta horrek igoeraren kilometroak jaitsi egiten baititu.



Xabier Gabilondo, igandean korrituko duen bergarar bakarra.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



Pelotarixa izan nahi dot!!

Lehen diñenez, ez zauan pelotan edo futbolian eittiaz aparte aukera haundirik. Gaur, ostera, saskibaloia, tenisa eta abar modan dare eta lehengo aldiak gutxi die pelotan jokatzeko dabenean neska-mutillak. Erretratuak kuadrillia 1977xan Bergaran herri-maillako txapelketia irabazitakua da.

Kopa bana hartu eta erretratuan serixo-serixo agertzen die. Badare, eren artian gero be, zenbait kiroletan maña bat kopa irabazitakuak.

Ezkerretik eskumara:

Zutik: Jabi Arana, Mikel Azkarate, Aitor Beitia, German Lazkano, Asier Madinabeitia, Migel Anjel Askasibar, Pedro Marin, Iosu Linazisoro.

Makurtuta: Alex Gardoki, Ibon Arana, Iokin Etxaniz, Asier Garitano, Markos Perez, Mikel Lazkano, Markel Goenaga.

Felipe Iñarra

Argazkia: Alex Gardoki

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ORTZI
erretegia

Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
130 lagunentzako jantokia
☎ 76 22 68 ANGIOZAR

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



ARANZADI IKASTOLA

2 urtetik 18ra arteko heziketa eskaintza



2 urtetik 8. mailara arteko
aurrematrikula epea:

MARTXOAREN 1etik 14ra arte



centro
hogar
MUEBLES

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

Sartzen dena:
Zeuk behar dituzun
altzariak.

ARRASATEKO BARIANTEAN